

Ego, erreka lerdan! Emen nok mintzo-min!  
Gaur, beintzat, itz egidak ez ulu, ez zotin;  
Orrek naiko entzunak ditut oso gordin,  
Ta begoz oraingoan enegandik urrin.

Elgeta, Mallabia ta Urko ire sor-leku,  
Arri-sabelpe jaio arren, ez az iñoiz izu;  
Nirriarka oi dok lurra poz aundiz alaita,  
Abotsa izan ik ezti, zidar baizen zalu.

Lertxun, altz, leizar, areitz ta pago, eundaka,  
Or-emen dozak ernai ta buru makurka;  
Goiz eta arratsez oro, iñoiz aspertzaka,  
Igañtik yagok alai maiatza ereska.

Irri-poz bete yabilk Eguna zoroitxo,  
Maitemindu kaskarin biotz gazte antzo:  
Ire ots-ari gainez kulunka gogozko,  
Jaio-barrri bai litzan beraren mutiko.

Goian txoriak deda ire ertz urdiñean,  
Bai ta neskatxa goinez, txangilla gerrian,  
Igana doa pozik, amesa barnean,  
Ta ik —maitale izan— pa ari, espan-ertz gorian.

Mendi-beera oala, lotu au gizonak,  
Eta or dituk ire leiartzko ai-otsak:  
Korta-barne esituta, murrutza zezenak;  
A ta i eraso batek nastu, azke-griñak.

Gera, hodean, ibai nausira orduko,  
Ernu ta Eibar dituk lagun bi gaiztoko:  
Lendago ire zorzan enskera mintzoko,  
Gaur, endel-zaletuta, egiñik besteko.

Begitan au aspaldi Eibar'ek gaiñera,  
Et yagok iñundik be ire ulu-otsera,  
Arresiz estatuturik jaurti au lurpera,  
Ta i or abül euzkige zator baltz antzera.

Ni egaz naiokik adimen-indarrez,  
Ene gogoa iregan yout asperenez,  
Ik hai dok sarriro jarten ames-lorez,  
Oinane-aldian be goi-eroapenez.

ICOTZ